



1886tik
**ZUREKIN
BIDAIATZEN**

Desde 1886
VIAJANDO CONTIGO





DTK-ren 125. URTEURRENA

1886ko abuztuaren 28an sortu zen Donostiako Tranbiaren Konpainia (DTK), beraz, aurten 125. urteurrena da. Gaur egun bidaiarien garraioa egiten duten konpainia zaharrenetakoa da.

Enpresa zaharrenetako bat izateaz gain, DTK Gipuzkoako garrantzitsuenetako bat da langile kopuruari eta egiten duen jarduerari dagokionez. Egunero 100.000 erabiltzaile inguruk erabiltzen dituzte DBUS autobusak, eta DTKren langileak 500 inguru dira.

125. urteurrena konpainiaren aitorten-une gorenean iritsi da, urtean 29 milioi bidaiariko zifra historikoa biltzen duen garaian, hain zuzen ere; 37 autobus-linea eta 121 autobus ditu, horiek guztiak % 100ean egokituta, hiriko auzoetan zerbitzua ematen, 2010 urtean zehar 6 milioi kilometro baino gehiago eginez eta aitorten garrantzitsuekin, baita Europa mailan ere, teknologia berriak aplikatzeagatik, kalitatearen alde apustu egiteagatik, Erantzukizun Sozialagatik eta, bereziki, ingurumenagatik.

Arrakastazko ibilbide hori ezin izango zatekeen burutu egunez eguneko erabiltzaileen laguntzarik gabe, 125 urtetan etenik gabe erabili baitituzte konpainiaren zerbitzuak eta gaur egun oraindik ere autobusa modu masiboan erabiltzen jarraitzen dute. Bestalde, historian zehar konpainian zerbitzua eskaini duten langile ugarien esfortzu eta dedikaziorik gabe ere ezin izango zatekeen hori egin.

Hori dela eta, urteurrena erabiltzaileekin eta langileekin batera ospatu nahi dugu, eta horretarako, DTKk jarduera-egutegi bat prestatu du datozen hilabeteotarako, uztailara arte, 1887an konpainiak egindako lehen zerbitzuaren urteurrenera arte, hain zuzen ere.





DTKren historia eta bilakaera oso lotuta dago Donostia hiriaren beraren bilakaerarekin. Hori dela eta, hainbat jarduera egingo dira datozen hilabeteotan, ahalik eta herritar kopuru handienara iritsi nahian. Antolatutako jarduerak partaidetzazkoak izan daitezzen nahi dugu, eta adin-tarte guztietan pentsatu dugu, gazteenetatik hasi eta adinekoenetara.

Ekitaldien antolaketan lagundu nahi izan dute hainbat erakunde; izan ere, horien laguntzarik gabe ezin izango genukeen antolatu. Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta KUTXako Gizarte Ekintza kolaboratzaile garrantzitsuak dira, baita inplikaturako beste hainbat erakunde ere, hala nola MAN Ibilgailu Industrialak, BURILLO karrozeriak, FNAC, SAN MARTIN MERKATUA eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarte (SFG).

Egin beharreko jardueren artean, aipatu beharrekoa da **liburu bat argitaratuko** dela: 125 urteotako DTKren ibilbide historikoaren irudiak jasoko ditu. Trenbidearen euskal Museoko zuzendariak, Juanjo Olaizolak, lagundu du edukiarekin eta KUTXako Gizarte Ekintzak finantzatzen; horiei esker argitaratu ahal izango dugu.

Datorren urte osoan zehar hauek izango dira egin beharreko jarduera nagusiak hiritar guztientzakoak irekiak:

- **DBUSBERRI** aldizkariaren ale berezia argitaratuko da 125. urteurrena dela eta.
- **Herri-partaidetza duten lehiaketa kulturalak:**
 - **Argazkigintza Digitalaren Lehiaketa**, FNACen eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen (SFG) lankidetzarekin, azken horrek erakusketa egiteko lokalak utziko ditu.
 - **Kontakizun laburren lehiaketa**, FNACen lankidetzarekin.
 - **Bideo laburren lehiaketa**, FNACen lankidetzarekin eta [Facebook](#) bidez kanalizatuta. Bertako saridunak autobusen multimedia plataforman emango dituzte.
 - **Haurren marrazketa-lehiaketa**, autobusa eta Gabonak gai hartuta, San Martin merkatuak babestuta, eta aurkeztutako marrazkiak kultur etxeetan ikusgai jarriko dira.





- Donostiako erdiguneko eremu batean herritarrei zabalik egongo den jaialdia egitea, MANek babestuta.
- Hirian garai desberdinetako hiru autobus jarriko dira ikusgai, BURILLO karrozeriak babestuta:
 - o 70eko hamarkadako **trolebusa**
 - o 80-90eko hamarkadetako autobusa
 - o Gaur egungo autobusa
- DTKren historia grafikoa biltzen duten **irudi historikoen hainbat erakusketa**, kultur etxe ugaritan.
- DTKren historiari buruzko **adituen eta historialarien hitzaldiak**, Juanjo Olaizola eta Javier María Sardáren lankidetzarekin.
- Ikastetxe eta **ikastoletako haurren bisita gidatuak** Kotxeraseko instalazioetara.
- **Ate irekien egunak**, herritarrek Kotxeraseko instalazioak ezagutzeko aukera izan dezaten.
- Urtean zehar **DTKren webgunean** DTKren historiarekin lotutako ikerketak argitaratuko dira.
- **Garraio publikoa sustatzeko kanpaina**; bertan, autobus-erabiltzaileen artean opariak zozketatuko dituzte eta garraio publikoaren erabilera zabalduko dute.

Aldizka, DBUSen webgunearen eta komunikabideen bidez, egingo diren jardueren edukiak eta datak jakinaraziko dira.

Halaber, hurrengo hilabeteotan zehar, DTK-ko langileentzako hainbat oroi-pen ekintza antolatuko dira.





Dbus-en Argazkigintza Digitalaren 1. Lehiaketa

Aipatutako jardueren hasiera gisa, gaur, abuztuaren 25ean, hasiko da **Argazkigintza Digitalaren 1. Lehiaketa**, FNACek babestuta eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartearekin (SFG) lankidetzan.

[Informazio gehiago](#) (pdf)

